



Nicolas Sarkozy



Ségolène Royal

## Frantziako hauteskundeak

# Boz erabilgarriak uniformetasuna islatu du

Nicolas Sarkozy eta Ségolène Royal gailendu dira Frantziako hauteskunde presidentzialetan. UMPko hautagaiak bozen %31,18 lortu ditu eta PSkoak %25,87.

Maiatzaren 6an ezagutuko da Frantziako estatuburu berria. Oilar jokoa aurreratu genuen aurreko astean, eta oilar jokoa ez da amaitu. Oilarretako bat emea da, ordea. Errepublikako presidente lehian lehen emakume izateak hautesleengan eragingo duelakoan gaude. Eragin handiena baina, François Bayrou zentristak hartuko duen jarrerak izanen du.

MIKEL ASURMENDI

**BIPOLARIZAZIOA** da Frantziako presidentzialetako lehen itzuliko emaitzek utzi diguten ezaugarri nagusietako bat. Sarkozyren UMPren eta Royalen PSren artean eman da bipolarizazioa. Bayrouren UDFk lortutako emaitzak ukitu berezi bat ematen dio bipolarizazio horri, ordea. Le Penen FNk bozak galtzeak eta lau aukera nagusien arteko galtzaile nagusia izateak berpiztu du Frantziako bipolarizazio historikoa. Frantziako V. Errepublikaren ezaugarrietako bat bipolarizazioa izan da

orain arte, eskuinaren eta ezkerren arteko lehiaren ondorioz.

### Bipolarizazioa, nolakoa baina?

Bipolarizazioa hitza erabiltzean, eskuinaren eta ezkerren artekoa azpimarratu ohi dute hedabide nagusiek. Bai, hala nagusitu da eta horrek markatzen du jada bigarren itzulia. Alabaina, bigarren itzulian garaile jalgiko denak zentroko Bayrouren bozak beharko ditu batez ere. Bayrou zentrokoa al da, ordea? Ezkerreko alderdi historikoenzat (PC, LCR, Berdeak, LO),

ez. PSk berak eskuinekoa jotzen du UDF. Aipatutako ezkerreko alderdiek Royalentzako boza eskatu zuten emaitzak ezagutu bezain laster, Sarkozy presidente izatea oztotatzeko xedez. Royalek emaitzen ondoko agerraldian egin zuen diskurtsoa oso liberala izan zen, alta, Bayrouren bozak irabaztera zuzendua eta ezkerreko aldarrikapenei behar bezain beste munta eman gabe. Ezkerreko hautagaiek Royalen diskurtso liberala auzitan jarri zuten hauteskunde gaeuan. Bipolarizazioa hitzari beraz, eskuin “gogorra” eta ezker “liberala”

| Hautagaiak                                                                                                  | Alderdiak                                                                                                          | Botoak     | %     |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------|-------|
| <br>Nicolas Sarkozy        | <br>UMP                           | 11.324.741 | 31,18 |
| <br>Ségolène Royal         | <br>PS                            | 9.405.055  | 25,87 |
| <br>François Bayrou        | <br>UDF                           | 6.750.869  | 18,55 |
| <br>Jean-Marie Le Pen      | <br>FN                            | 3.824.771  | 10,51 |
| <br>Olivier Besancenot     | <br>LCR                           | 1.494.721  | 4,11  |
| <br>Philippe de Villiers | <br>MPF                         | 815.851    | 2,24  |
| <br>Marie-George Buffet  | <br>PCF                         | 705.830    | 1,94  |
| <br>Dominique Voynet     | <br>Les Verts                   | 570.324    | 1,57  |
| <br>Arlette Laguiller    | <br>LO                          | 486.577    | 1,34  |
| <br>José Bové            | <br>Laboraria eta altermundista | 479.222    | 1,32  |
| <br>Frédéric Nihous      | <br>CPNT                        | 420.112    | 1,15  |
| <br>Gérard Schivardi     | <br>PT                          | 123.318    | 0,34  |

adjektiboak gehitu behar zaizkiolakoan gaude.

## Nicolas Sarkozy

Emaitzak ezagutu eta ordu batera agertu zen Sarkozy jarraitzaileen eta hedabideen aurrean. Bere diskurtsoa arras moderatua izan zen. Royal aipatu zuen sarri, honekiko errespetua, eta demokraziarekiko duintasuna hitzak gailendu ziren. Bayrou aipatu gabe, honen bozemaileak izan zituen xede. Bere diskurtsoak herri xumea eta langilea hunkitzea izan zuen helburu halaber. Le Penen bozak ziurtatuak ditu, antza.

## Ségolène Royal

Royalek bi ordu luze behar izan zituen frantziar hiritarren aurrean agertzeko. Ez zuen behin ere Sarkozy izena aipatu, bere diskurtsoa hark esandakoren segidan etorri zen. Hitz bakoitza neurtua eta kalkulatu zituen. Diskurtsoaren ahulezia Bayrouren eta ezkerrearen bozak batera bildu beharra. Diskurtso eskizofrenikoa eta PS ezkertiarren krisiaren ezaugarria. Hori da bigarren itzulian irabazteko ahulezia. Bere sendotasunak, berriz, PSren barruan indartua atera izana, eta presidente izan daitekeen lehen emakumea izatea.

## François Bayrou

Bayrou publikoaren artean azaltzen hirugarrena izan zen. Bera da hautagaien artean gehien irabazi duena, irabazleena esan genezake, hala ere, ez da bigarren itzulian egongo. Frantziako politika aldarazi duela dio Bayrouk, eta arrazoia eman behar zaio. Bere esku dago, neurri batean, Sarkozy edo Royal presidentea izatea. Bayrou ez da UDF osoa ordea. UDFko kide asko UMPtik hurbil dira. Bi aste hauetan ageriko da Bayrouren pisua UDFn, baita Sarkozyren edo Royalen alderako politika eginen duen. Hots, ezkerrek dioten bezain eskuindarra den edo eskuinak dioten ezkertiarra den. Berak du giltza.

## Ipar Euskal Herriko emaitzak

Frantziako pentsamendu bakarra aipatu genuen aurreko artikuluetan, baita "gurean" besterik zela azpimarratu ere. José Bove edo Le Penen emaitzak ezagutzeko irrika adierazi genuen. Boveren emaitzak ez dira adierazgarriak izan, ezta laborantza herrietan ere. Le Penek berriz bozak galdu ditu. Sarkozy, Royal eta Bayrou nagusitu dira, erruz. Zuberoa eta Nafarroa Beherean Bayrou atera da garaile. Lapurdin, eskuinaren alorra, Sarkozy irabazlea izan da, Baionan Royalek aurrea hartu dio ordea. Bozen erabilgarritasunak gurean ere dagoen pentsamenduaren uniformetasuna agerrarazi digu.

"Bi asteotan ageriko da Bayrou, ezkerrek dioten bezain eskuindarra edo eskuinak dioten ezkertiarra den"

## Inkestean eta hedabideen erritmora

Bozen erabilgarritasunaz gain, boz emaleen parte-hartze handia (%84,60) izan da hauteskunde hauen beste ezaugarri nagusi bat. 2002ko emaitzek –Chirac eta Le Pen pasa ziren bigarren itzulira– eragina izan omen dute. Guk, horrezaz gain, hauteskunde kanpaina inkestean eta hedabideen erritmoan gauzatu dela azpimarratu dugu, baita baieztatu ere. Hedabideek hautesleen bozen intentsioa ezagutu bezain laster –intentsioak eta boz errealak bat egin dute ia erabat– bigarren itzulirako hautesleen boz intentsioa ezagutarazi zuten. Sarkozyk %54 erdietsiko luke eta Royalek %46. Galdera da: nola eragiten dute inkestek eta hedabideek hautesleen parte-hartzean eta boza ematerakoan? Bigarren itzuliko emaitzek horren neurria ezagutzen lagunduko digute. ■